

# Berbak legezko aiztoak

JOANES URKIXO

 **Susasa** poesia

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.  
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:

<http://susa-literatura.com/ebook>

© 1990 Joanes Urkixo

© edizio honena: Susa

cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu

<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu>

Lehen edizioa paperean: 1990eko azaroa

Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz

Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea

Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu

Telefonoa: 943 83 26 55

Elektroposta: [susalit@armiarma.com](mailto:susalit@armiarma.com)

Webgunea: <http://susa-literatura.com>

Etta joango naun  
eta nire atzean geldituko zementuzko egunsentia  
betirako etxeko atean  
malkoz bustiriko agur barea zintzilik

Eskaileren kardamuan azkeneko gogaeta banaletan  
oroimena berariaz utziz gero  
joango naun  
espaloian etzandako mozkortien  
bart gaueko tristeziaren oihartzuna  
edontzien elkar jotze gor mingotsa eta urruna  
kale oihan zaharrean arrastoa egindakoa  
nire itzal hutsalean aurkituko ditun bihar

Joango naun  
eta bihar argitzean ihintzaren kapusaiak estaliko  
nire urratsa  
baina dena gel dadila: hire ametsa ezkutuan  
neon argi zurbilak zain dezala  
Joango naun  
eta geroak ehoko dizkin mila amaraun

nire memoriak ez dezan erloju gelditu bat legez  
iraun

Joango naun

Koskortuko dira oraindik itxaropena eta balkoiko  
geranioa

Diotsat nik etxerako zidor aldaezinean jarraitzen  
didan itzalari

Buruaz dagoit adei herabetia makurtzeko kapelarik  
ez daukadala

Hosto zimelotan irla urrunak dakarzkidan brisara  
munduegileari

Eta parajeak mugidagabe dirau zuregandik ihes  
egitean

Semaforo gorrian gelditurik euriari jaurtiki diot  
galdera

Ea zertarako balio duen gaueko hiruretan zuregatik  
masturbatzeak

Ba ote den beharbada esperman itotzea zerbezan  
baino goxoagoa

Baina zure begirada oh darling algodoizko fereka  
izan zen bart

*(Goodbye my love zioen Marlowek eta nik ere  
badezaket*

*zigarroa expainetatik kendurik bazter honetan hozki  
errepika)*

Hainbat panpin anfetaminatu zilarrezko teilatu  
horietan blai

Kalerik zuzenen hau Minosko laberinto elektrikoa  
getting the hell out of it neonezko keak papurtuta

Bilbo Bilbo sutan dagoen berba mingotsa  
erlojuak dioenean zoro hori ez dago zure eskuentzat  
pianorik  
euria mara-mara erortzen 3x4 allegro moderato eta  
Eros gordean euritakorik gabeko ibiltari bakartiei  
begira

Zenbat amets bazter honetan josi eta betirako galdu  
ziren  
azken batean ez bait ziren metalezko murraila bat  
baizik  
zerumuga ixten duena irribarre izoztu guztion  
gainetik  
metalezko murraila denboraren fosil xuria  
uhainaren apar iheskorra

Bilbo Bilbo maskaratua gure begien kolorekoa  
sukarrez populaturiko deuseza uralitazko zerua  
parke hezea non zementuzko pan arbolak papurtu  
egin diren

eta bitartean hego haizeak etorkizunezko gazteluak  
dakartza  
hilzori amaigabe honen izerdiak betirako isuri  
daitezen



Isiltasunaren izenak idatziko ez diren baso  
hustueta ere  
malko pare bat eskupeko utzi genuen behin baino  
gehiagotan  
gure kateak ez zitezen gauaren gortinen aurka  
erajota ur

Zenbat lapitz ere hautsi ez ote genuen geure hatz  
karrokatuekin  
mahai honen gainean amargura txikitazko istorioak  
margotzean  
iraganaren amets eroen gainean zaldian legez  
noraezean

Izotz ere bihurtu ziren gure esperantzarik gozoenak  
gaupasa etsipengarri eta amaigabearen joko zahar  
honetan

Zertarako beraz erromako zubi berri baten esperoan  
geratu

nondik eskekiko ote aintzinako horrenbeste espektrorik  
itxuragabe  
zergatik gogoan eduki mailukizko soroak  
bezalatsuko utopiak  
denboraren eztenak oroipenen zauria zoldu  
digularik

Atxeki zakizkio tinko bideari  
eta eskuak ere atxeki  
brisarazko filigrana den  
bolante horri  
ez dugu promes zurbil gehiagorik jasoko  
semaforo gorrien artetik  
ez dugu malko gehiagorik idortuko  
autobus geltokietako bakartasunean

Eta kontuz arretaz my friend ez ezazu uste  
tulipanezko soroak  
zoriaren gurpila direnik  
ezta ere artaziek moztuko dutenik  
gure oroimenean izozturiko  
aintzinako irudirik

Eta ez ezazu argitik edan  
gauari zeure lepo gainean eutsi arte  
halaxe egin zuen poeta eroak  
ispilu hautsiaren papurretan itzarritakoan

Baina zergatik batek daki  
ez niri galdetu amigo  
zioen estetak eta nik no comment shut up  
Humphrey Bogarten zigarroa eta horrela ba

Hire begiak etxe zabalak ditun  
non ilargiak ezkututzen duen  
armiarma baten haria zilarrezko antsia

Zein poliki estutzen ditunan ezpainak  
edo barrez lehertu  
naizen arrotz honen ondoan eserita

Biluztu haiz eta eguna amaitu  
Abegi dagiogu gauari gogoz  
goizak elkarrengandik banatuko bait gaitin

Etsipenez abordatuko dizkinat hire erraiak  
baina gauaren oihalak hedatzean  
hire larruaren itsaso barean zeharka abiatuko  
hire sexuaren bikezko usain onaren bultzadan  
ilunpeko gordelekuren batean  
nire ametsak ahaztuta utzirik

Joan huen inularra  
eta bere buztanean eraman gaua

Egunsentiarekin batera  
euria zetorren berriro  
nire gogaetak eramanez  
kalean behera

Laga nuen itxaropena orduen engranaiaren  
inguruan  
aizkorak azken minutua ebazten zuela  
eta hara bildutako jendetzaren erdian  
zaharren sorbaldetan umee  
esku eta aurpegietan adierazten zuten ikara.

Beste kalean, erreka ondoan,  
lur lehorra dantzaka hotzikaradun ipar haizearen  
konpaseetan...  
eta neska emakumea leloa kantari  
edozein bazterretan bere haragia alferrikalduz  
edozein bazterretan zutik ormaren kontra  
eta azensoreetan gizonak hienen antzera barrez  
bitartean eta dezensoreetan hienak gizonen antzera  
negarrez.

Trumoiek irensten zuten herri batean zen  
jendeak beste barik kalera urteten zuen herri batean  
jaietarako biluzik baleude bezala.

Leihotik ikusiko ditut luzaro  
jantzi zuriak eguzkitan eskekiak  
beti sostropo mordotuen dastakera gogoratuko  
baita umeen joko alaitsuak, haien artean bat  
nintzena.

Baina orotzapen guztiak sakabanaturik  
nork iku zezakeen behin batean izana  
aienatuko dira noizbait arrats eguzkitsuak  
eta elurrezko goizak  
eskekiriko jantzi zuriak eta sugelandareari  
beldurrak.

Ustekabeko topo batek ere ez nau bidean  
geldieraziko  
ezerk ez nau hara lotzen, ez joanak ez etorkiak  
ez abestu ohi nuen kanta zaharrak.

Hodeiertz faltsua desagertuz doa ttanttoka  
beraren ate kondenatuak betirako itxiko.  
Behin eta berriro ilargia dakusat erdi janda  
eta izar desiragarriak han goian eskuhar...  
Etzazue ez sekula nire figura espero  
gaueroko zitan  
oi argi ezkutuen kapitainak



*Oh the wind the wind is blowing  
thru the graves the wind is blowing*

Paradisu ilunen haizea niregandik ihes eginik  
zure pausoak marka zitzakeen erlojuaren gainetik

Gure begien arteko kale lerro okertu hau  
alarma gorriekin ernari  
mundua hondoratuta gu ere amilduz goazela apurka

Berantesten dut adiskidea  
eta hotz etengabeak izar lokak itzalerazten ditu

Begirada biluzizko gertaeren oihartzuna maitasuna  
stop zuhaitz argitsuak hostokatzen ari dira bai  
begira  
ezarriko dugu itxaropena —9 mm parabellum—  
argira?

mahai gainean dago eta urrundik tiro tira  
ate batek ez ditu distantziak hausten sikira

Gauean baditun handitasuna eta lilura basoak eta izakiak elkarrekin joaz eta hi ere bahago.

Gauean baditun bidaiariaren urratsak eta ilunpeko ernaria eta neonezko argiak (eta itzalaren semeak).

Gauean trenak eta itsasuntziak igarotzen ditun eta argiztuta dagoen herriaren espejismoa ilunabarreko azken adorea eta egunsentiaren promesa.  
Eta hi ere bahago.

Kanta soinu bat gauean, ahots epel bat ate baten astindua, hirurak erlojuan eta ez soil-soilik izakiak eta gauzak eta hotsak baita ni ere baniagon ez zekinat zeren atzetik baina.  
Eta hi ere bahago  
hi itxaroten dudana.

Begiak ixtean  
irudi arrotzak zetozkidan gogora.  
Begiak ixtean  
dirdira fluorezentez betetzen zaidan  
irudimena  
eta hi ere bahago, dudarik gabe, urrats zail hauetan.

Gauean nire ametsak herri estrainio eta  
beldurgarriak  
ikertzen dizkin  
eta urtziaren eta izarren dastakera  
eta bi mila eguneko oilarraren deia

Gauean baditun izarrak eta itsasoaren mugimendua  
errekak hiriak basoak belarra  
ehundaka gizonen b-i-r-i-k-i-a-k.  
Gauean baditun munduaren sekretuak  
baina ez zegon jainkorik.  
Hi berriz hi bahago  
hi berba errazak erdeintzen ditunan hori  
nire ametsaren oinarria.  
Gauean bahago eta egunean  
egon egongo haiz.

**A**metsaren zorroa, apain estrainio eta itsua  
zure egunsenti atxikitua nire eztarrian  
hotzezko sorginkeria.

Baldin nire etxeak leihoak baleuzka  
baldin txinurri beltz honek bere lasterketa  
geldituko balu bihurgune hauetan  
baldin trumoiak desagertuko balira  
urezko abesti eternoaren artetik  
eguzki urrun bat esnatuko litzateke

Baina bien bitartean kometa dardartia  
hegan dabil  
metale xumeaz egindako kometa dardarti bakartia  
bakarrik  
astronomiaren adats luzedun lingotea  
erreka hotzitia  
lurraren heste hegalaria  
odol jario bat eguzkia busti nahian.

Kalean ahaztutako galtzerdiaren kolorea baino  
tristeagorik  
harlauza hezeetan ez dut deus ere aurkitu  
eskaileretan gora noalarik  
Eguzkitan dantzuzkit arrainak orroeka  
euren hortzak zimurtu eta grisak  
erosta itun hau kanta ederra ei zuten antzina

Eta orduan biluzik nire amorantea lez biluzik  
jaitsi zaizkit garrak eztarrian barrena  
eta denboraren euriteak hasi ditu bere kristalezko  
melodia  
kristalak bai kantatu egiten bait du  
kristalaren kanta elixir ezinezkoa  
Ai zeinen ederra kristala bere bide karabilkatsuetan!

Beraz bizitzaren bihurguneetan galdurik nabil  
goizak eta gauak erruletan jiraka ari direlako  
oihan goibelean zelatan dagoen begia nauzu

Gogoak ispiluak egizue negar

kristala zuentzat jainko bat bait da  
eta jainkoak ai amigo jainkoak  
bide ertzean jarri ohi dira arratsero  
ipuin odoltsuak kondatzeko

Aintzina zure irudi eskasen jitoan maite zintudan  
baina gaur guzti hura islada bat  
eta ezordu honetan norantza ihes egin  
zein bide aukeratu  
haize guztiek nire hasperenak ezagutzen dituztela

Haizeteak orre dagi  
leihoetako gibellate herdoilduetan  
goizeon suzko arnas bat darigu  
erraietatik ezpainetara  
eta ur istiltsuak astintzen ari dira artega  
nire oinpetan.

Salgai depreziatu mordo honen bitartean  
hotsa  
gor eta mutu datorkit  
(gizarte metalikoaren hotsa)  
eta haren isladaren kulunkan  
eztialdi arrotz batek estali nau poliki-poliki  
eguzkiaren urre gartsua nire zainetan barreiatuz  
haizearen bihurguneetan nire ilea  
sakabanatuz

Hautsi dezagun samindura egunsentiaren  
mailuarekin

Gorde dezagun hodei bat geure begien azpian  
Eta irakatsi harriei egunerokoaren izena

Ezpain zorrotzak legezko piziti erraldoiak  
Negua halako aztarna laga duzuen piziti egarriak  
Zidorretan pausua oker ezazue oker  
Gela hotz hauetan azkon pozoitsuak  
Harrapa ez zaitzaten

Nire oinazean babesturiko ezpain miretsiak  
Irribarre zoro hegalariak  
Txori bidaztien antzera jendetzaren gaindi igaro

Nire begietan isiltzen ez diren ezpainak  
Sekretuen zuhaitza desohostu egiten dutenak  
Ispiluen diztirak, aurpegi zahar ezagunak  
Zeru triskatuaren islada aintzina ezkututakoa



Gorputzak etzanik egunsenti astunak  
erraldoi isilak elurrez bilduak  
doinuen bizkarrak arratsaren gelditasun gainean  
bide bifurkatutan datorren hur  
haren ezpainek nire bizitzaren ezpainak bustitzen  
dituen hur?\*

guzti hau desfilatzen LIKE A PLAYBACK OF  
aiztokadak

amodio ezinezko komeriak eskainiz desfilatzen

Eta hala ere itxaropenezko txanpon uholde bat  
eta hitz gartsu batzuk  
erakusten zaizkie bere kartak azaldutako leku honen  
begiei

Eta amodioaren izaera bere adioarekin nahasten da  
arratsari ematen gomutaldi zorro bat  
magal gorien atetan metaturiko odola  
bezain gomutaldi zoliak  
zeren soilik bakartasun egiazkoan dira betazal itxiak  
soilik hartan sortzen hilobi berriak

Gorputz biluzien egunsentia non dena den  
litekeena  
zerumuga antzematen den gailurra ezezik

\*Hur?: Alfa egunsentia da  
edo 3000 kilometroko fantasia hutsala  
edo oihuka sorturiko zilbor hestea  
edo «kontuz alfa hauskorra»

Zutitu naiz ikusteko  
txori txikien itzalak xahututa  
teilatu tontorretan  
denboraren piztien erostak josita  
odol eta hausterrezko malko hauetan  
zeren hain hotz dagoenean haizea  
zein urdin zerupaperak

Zutik sentituz aiztoaren sorbatzean banengo bezala  
urteen sama sentituz  
izualdi moreztatutan barrenatuz  
gezurrezko aginak zabaltzen  
gorrotoz...

Eta oraindik mendiek ez dute arnasik hartu  
ez odolezko ibaiek hildoak estali...  
zutitu naiz eta hiri krudelaren lepoa ikusi  
bidaiari bakartiaren harridurarekin  
eta galdu ere galdu adia  
murmuriaz poblaturiko neon argietan  
edo huts ixilen hoztasunean

Kale huts eta oihartzunez beteriko honetan  
azkeneko barrikadan galduriko amets zimela aurkitu  
dut

zuhaitz erraldoietan bere sustraiak erajota  
baina ez da orain berriro jasotzeko tenorea  
ez eta ere txakur deslaiak berriro izango  
ekaitz elektriko haiek iratzarriak

Eta kale barrenean hiriaren harresian  
zentinela nekazina inularrean itzala  
gorribeltzean ezabatua eguzkiaren sarean  
Hitzik barik bere ezpainen esan didate  
sekula ez duk Praga ikusiko  
ez oh ez eta ere haren mila dorreak

Eta ez dela orain berriro jasotzeko tenorea  
hiriko asfaltotik aintzinako arrastoak  
eta agian gero gaua oldarka etortzean  
zaldi zurian asapalan joango naiz  
mailukizko zeruan zazpi burudun izarrak

eta nire oinpetan urtuko eulibeltzak bailiran  
Ikaroren hegaletan egingo dut ihes  
Pragara Pragara Pragara

Eta orduan ekaitza zuregan eroria eta motorista  
hegalariak lainoan

Boteretsua dun lorategi errautsiaren murmurioa  
hire ahoan

Urre izoztua edaten duen arnasa haizetan esku  
lurruntsuak

Eta egunsenti epelean nire bihotzak itsasizarrak  
goitikatu zure masailetan

Bada zeruari ttuka suintement cathédrale vertébré  
supérieur

Oh ilargiak zamalkatzen du zidor berde-turkes  
batean ezpainak estuturik

Gauaren kutxiloek begiradak lez zauritzen dizute  
botila gartsu hori

Eta nolabait zentauroak bazter iheskorrei erasotzen  
die

Nire bihotzeko itsasikara ibai ubide lehortua mortua  
Oh blues usain zaharra maitasunik ez nire pistolaren  
ahoa

Hondorik gabeko abenidan irudi zanpatuak datozkit  
buztan matematikoen antzera  
Eta hemen in town gau berri bat gau arrunt bat  
gehiago

Amadisek bere ezpatak negar anpuluak isurtzen  
zituela

Zeruari ttuka leiho zabalean zehar  
Edozeinek ikus lezake amets txikiei darien gatza  
Eta hortxe bukatu zen kondaira udazkeneko haizea  
aienatzen den gisa

Zurekin nago Bilbon

Non uralitazko zero horrek gure begi nekatuak  
ausikitzen dituen

Non goizero betiko irudi ilunak gertatu eta deuseza  
Deuseza sukarrez populatzen den

Zurekin nago Bilbon

Non ilunabarrak urturik erortzearekin batera  
geldiro zatikatzen duen eguzki grisa ibai ahaztu  
baten eskeletoa

zubiak ahoa zabalik negarrez ari direla

Zurekin nago Bilbon

Non deus ere ez den zeharo egiazkorik ez kautxozko  
malkoak

isurtzen dituen jainko metaliko hau

ez kiratsa darion gonbite larria

ez berripaper puskatuen bidez itzultzekoa dela  
gogorarazten digun gaua ere



Zurekin nago Bilbon

Eta nire begiek hiri maskaratuaren kolorea daukate

Zurekin nago Bilbon

Non gogo gazteak euren paradisu laburrean  
alferrikaltzen diren

gauaren makineriaren kontra

Non lilurapenak setiatu dituen ur izoztuak begi  
keinuka ari zaizkien suzko zalditan

datozen aingeru beltzei

Non jaberik gabeko gorputzek gela ormagabetan  
makurtu eta

haragi zuriez & zakilez & ejakulazioez & drogaz  
& ezinezko maitasunez egiten duten amets

leihoan zehar Horroreari begira

Eta Horrorea etorri dator eskizofrenia eta stress &  
kafesnez blaitutako papurrak eta pan zuhaitzak  
& ilargi kerrako ataka eta tronpeta urrunen artean

Zurekin nago Bilbon

Non gogo hoberenak herrestan doazen bele beltzen  
heriotzak

erreinatzen duen unibertsitateko pasiluetan barrena

Non eguzkitan etzanik azkeneko belarrarekin batera

azkeneko hasperenak askatu eta otoi egiten duten  
isilka

speed irentsi eta aintzinako ezagutzaz jabetzen  
diren

euren ezpainak odoleztatzen direlarik

Non leunki garandutako ametsak eraikitzen diren  
baina

eros ezazu gure produktua-ren mafia ilun batek  
ipurdia

apurtzen dien

Non jendeak indarra galtzen duen maitasunaren  
inguruan berbetan

erostetxe haundiko plastikozko poltsetan maitasuna  
bera ahaztuta

Zurekin nago Bilbon

Eta nire begiek zure esperantza zorroaren kolorea  
daukate

Zurekin nago Bilbon

Non taberna honen ahoak okatu eta hurrengoarenak  
irentsiriko

peripatetikoan batailoiak ez duen amaierarik ikusten  
eta

Babel Dorre mota berri bat eraikitzen saiatu den  
Non esku ameslariek suari zaunka eta isiluneari  
ekortu egiten

dioten hego haizearen izerdiak sufrituz goiz grisaren  
etorkizun

gazteluak margotuz gure buruak bakean suntsi  
ditzagun

hots eginez

Non hilzoria biluzturik aditzera ematen den kaleetan  
euren etsipenez eta deusezko intoxikazioa beste  
inongo krimenen

errurik gabe

Zurekin nago Bilbon bai baby yeah

Benetan I've seen the best minds of my generation  
etabar makabro bat

Poesia honen gauean euria dakar dio argiaren  
goiak  
kontzientziaren zulo hauek noraezeko bidearen  
atariak  
basamortuetako ahotsak harresi hutsak baizik ez  
dira

Deusezaren erdigunean denboran zeharreko hariak  
ibiltzen garen oihan eskergaraino mezua ekarri  
zutenak:  
ametsen zama astunetik ihes egiteko abagunea  
artaziak hartu eta unibertsoa zatika berregiteko  
abagunea

Musika kolorezko txorrota zerion gauari tantoka eta  
zu ere  
etengabeko egian sortutako odol lurrinik  
preziatuena azkena  
ilunabarreko zaurien azpian ez dakizula agur esaten  
zeurere burua behera bota behar bait duzu egunero

zori egongaitzaren leize zulotik sagarreko sugearen  
laberintoan

Zure irudia orduan distiragai saxofonistak in the  
mad movie

zorioneko ametsak Mickey Mouse agure bat azken  
batean

zulonpo galdutan non denbora izoztu zitzaizun baita  
ni ere

zurea beti mitxeletak bidaliko dizkizut beharbada ai  
ene

Hartu nire eskuak eta mun egien  
ez zeukaten odolik mailuki ustelak baizik  
merkatuko sasilore saltzailearen izerdia

Heldu nazan eskutik eta ihes egin nirekin  
Bilgailua gasolinaz bete eta motorea  
martxan jarririk hiritik ihes  
Han txakurrak odol hotzean hil eta  
hari elektrikoetan urkatzen dituzten hiritik ihes  
Han olio ibaien goaia  
trenbide izoztuaren gainetik  
bide egiten duen hiritik ihes

So egien nire begiei eta han ikusi  
ero naizen hau minutuen orratzari segika  
kale mortu eguzkigabeetan barrena  
So egien munstroei  
hantxe zeuden zaunka gure aztarnetan usnan  
So egien baina gu biok hala ere  
bide ertzean cannabis lorean high eta  
nekez egingo dinате gure gurpilek bira  
bihar goizeko urrearen gezien azpian

Zure begietara jaurtikitako iru  
dia Ni denborari atxekia hau  
xe da nire galdera neure za  
ma honekin nora joango ote  
Eta niregan barreneko kale  
ek diote Hare Krishna soft  
electric cries tic kling ez bait  
dago ezer esan beharrik  
Ihesbiderik ez neonezko flas  
hekin oinak moztu bait dizki  
gute eta bai piramide berde  
sinbolo liliputiense droga zo  
roaren hezetasuna lur azpi  
ko itxaro-pena Hau den hau  
agian benetakoegia urteak  
amiltzen zaizkit eta non ote  
bidea non ote nondik atera  
gela itsu honetatik

Nekaturik nago eta nire ahi  
dura honek zure kolore gal

dua dauka Haatik aurrera ja  
rraitzen dut espazio neurriga  
beko bardo itun honek baina  
nola ihes nola ihes egin noiz  
arte egun grisen ispilu hau  
Ezarri dezadan itxaropena  
balizko laino iheskor batean  
eta orduan akaso Erromako  
Zubitik behera parakaidan  
botako dut burua eta papurtu  
rik zure eskuetara erori

Ai ene ametsak zure negati  
boa gu bion Heriotz Makina  
galanta



Laino nabarra Botxoan  
beirazko altzairua xut ejaculatio precox  
txakur bat usnan Tampax kaja huts batean  
eta berripaper horixka:  
Casa de Masajes Carmina  
discrec  
garant  
(edo halako zerbait)  
zigarrokinak eta Coca Cola  
hau duk hau bizimodua dio ardozaleak  
ontzia azken tantaraino agorturik  
lasai egon behar duk beraz  
ezer ez bait da bere tokitik mugituko

Laino nabarra Botxoan  
politagorik ez det ikusi  
Londresen larrua jotzeko zorian  
aurkitu nintzenetik  
eta hemen tabernako guztien aurrean  
egian diotsat aixkiria  
me s,estácabando la vida  
letxes ere!!

Acab Acab non daukazu arrankazia  
Acab Acab figura ituna gainaldean

Uhainak arrain makurtuak kriseilu kulunkariak  
arrainak gaua bezain hotzak  
hodei txuri bat sarda bat balea  
bere zainak azal gaineko ibai barreiatuak  
eta gainaldean  
loro lore beilegia bere ametsak kontari:

ikusituen ero bizi ziren hiriak  
eta hango kaleetako txirrin elektrikoak  
baina orain nire postale bilduman  
begi guztien so guztien testigantza dira

Acab Acab isilean irentsiz  
Acab Acab gizalegezko negargura

Loaldi eternoan arrainak ozeanoekin amets  
eta karelean aluminiozko txori bat

itzalik bakartiena deusezera begira  
loaldi eternoan desiorik sutsuena  
Acab Acab figura ituna gainaldean